



NAFARROAKO
BERTSO ESKOLAK

Utzamaldeko Bertso Eskola

2025-2026 ikasturtea

Egitasmoaren helburu nagusiak

- Bertsolaritzan sakondu eta dibertitzea.
- Ikasleen hizkuntza erabilera bultzatu eta hizkuntza baliabideen sorta aberasteko, hitzekin jolasean aritzeko teknikez eta errekurtoez jabetzea. Horretarako bertsolaritzak eskaintzen dituen aberastasun linguistikoak ezagutzeaz gain, erabiltzeko gaitasuna lortzea.
- Euskarazko sorkuntza bultzatzea.
- Euskararen erabileran eragitea, funtzio akademikoa gaindituz eta euskararekiko atxikimendu positiboa sortuz, batez ere gazteen artean.
- Hainbat erabilera-eremutako ahozko testuak eta idatziak egoki eta zuzen ekoiztea, eta ekoizpenak kritikotasunez baloratzea.
- Egoera komunikatiboaren arabera koherenteki jokatzeko jakitea. Norberaren pentsamendua egituratuz bertsoan aritzea, komunikazioaren bitarteko bihurtuz.
- Bertsoa tresnatzat baliatuz, gure historiako eta ingurunekeo gertaera eta ikuspuntu sozialak lantzea.
- Memoria gaitasuna jorratzea. Memoria modu funtzional eta ludiko batean garatzea.
- Kanturako jarrerak eta gaitasunak lantzea, inguruko doinuak behatu eta erabiliz norberaren ekoizpenak eta autonomia garatzeko.
- Autoestimua areagotu eta norberaren zein inguruko sormenerako gaitasunean sinestea. Taldekideen aurrean agertzeko eta adierazteko beldurrak gainditu.
- Elkarrizketarako jarrera ona izatea, besteen arrazoiak errespetatuz, norberarenak argudiatuz eta ezarritako arauak betez.
- Jendaurrekotasuna eta norberaren erregulaziorako estrategiak lantzea.
- Entzumen aktiboa lantzea: aditzea.
- Ikaskideen arteko harremana errespetuan eta elkartasunean oinarritzea.